

Deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika (DBDE)
2022.

2022an 1.059 ezkontza desegin dira, aurreko urtean baino % 12,6 gutxiago

Deuseztasunen % 96,0 dibortzioei dagokie eta gainerakoa, banantzeei.

Dibortzioen % 72,1 adostuak izan dira.

2023ko uztailaren 13a

Nafarroan bizi direnen ezkontza-deuseztapen kopurua iaz igo zen ia ia kopuru bera jaitsi da.

% 66,0 10 urte baino gehiagoko iraupeneko ezkontzei dagokie¹
2022an ezkontza desegin dutenak 2021ean desegin zutenak baino 1,1²
urte nagusiagoak dira. Gizonek, batez beste, 48,3 urte dituzte eta emakumeek, 45,7 urte.

EZKONTZA-DESEGITEAK

Kopurua. Baliogabetasunen, Banantzeen eta Dibortzioen Estatistikako datuen arabera, 2022an 1.059 banantze eta dibortzio eman dira Nafarroako organo judizialean, hau da, 1,6 desegite mila biztanleko.

Prozesu motaren arabera. 1.017 dibortzio eta 42 banantze izan dira. Dibortzioak prozedura guztien % 96,0 dira, eta banantzeak, gainerako % 4,0a.

Elkarrekin adostutako desegiteak. 2022ko dibortzio eta banantzeen % 73,2, biak batera hartuta, elkarrekin ados jarrita egin dira. Zehazki, adostuak izan dira dibortzioen % 72,1 eta banantzeen % 100,0.

Sexua: 1.057 desegite sexu desberdineko bikoteei dagozkie, eta 2, sexu bereko bikoteei.


¹Sexu desberdineko bikote-desegiteen gainean kalkulaturako zifra.

²Zuzenketa bat egin da Uztailaren 17an, baloreen diferentzia 1,3tik 1,1era pasa da.



1. GRAFIKOA

Ezkontza-desegiteak Nafarroan, tipologiaren arabera.



Iturria: Nastat. Geuk egina, INEk emandako deuseztasunei, banantzeei eta dibortzioei buruzko datuetan oinarrituta.

SEXU DESBERDINEKO BIKOTEEN ARTEKO DESEGITEAK

Ezaugarri soziodemografikoak

Ezkontzaren iraupena. Ezkonduta 10 urtetik gora daramaten bikoteen artean izan dira dibortzioen % 65,7, eta 20 urte edo hortik gora ezkonduta egon direnei dibortzioen % 36,8 dagozkie, 2021ean baino 9,3 puntu gehiago.

Seme-alaba kopurua. Dibortzioagatik desegindako ezkontzen % 54,2tan eta banantzeen % 42,9tan seme-alaba adingabeak daude.

Ezkontideen adina. Dibortzio eta banantze gehienak 40 eta 49 urte bitarteko adin-tartean izan dira, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Gizonek 48,3 urte dituzte batez beste, eta emakumeek 45,7.

Nazionalitatea: Hausturen % 81,0ean senarrak nazionalitate espainiarra du, eta % 80,1ean, berriz, emazteak.

Egoera zibila: Gizon dibortziatuen % 90,9ren eta emakumeen 92,6ren kasuan, lehen ezkontza zen.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00



OHAR METODOLOGIKOA

Baliogabetasunen, Banantzeen eta Dibortzioen Estatistika urtero egiten den ikerketa estatistikoa da. Ikerketa horrek helburu du esparru judizialean planteatzen diren deuseztasun, banantze edo dibortzioko prozesuak aztertzea, eta arlo horretan eskumena duten organo judizialek beraiek epaiei buruz emandako informazioan oinarrituta egiten da.

Estatistika honen xedea da jakitea zenbat epai ematen dituzten Nafarroako organo judizialek erreferentziako urtean zehar deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen inguruan. Estatistikako Institutu Nazionalak Nafarroako Estatistika Erakundeari ematen dizkio datu horiek.

Informazioa ematen da inplikaturako ezkontideen ezaugarri soziodemografiko nagusi batzuei buruz (sexua, adina, nazionalitatea, seme-alaben kopurua), banantze edo dibortzio motari buruz (elkarrekin adostua edo auzibidezkoa) eta prozesu judizialarekin lotutako interes sozialeko beste aldagai batzuei buruz (mantenu-pentsioa, zaintza, prozeduraren iraupena, etab.).

Definizioak

Deuseztasuna: Ezkontza bat deuseza dela deklaratzeko duen erabaki judiziala. Deusezak dira ezkontza-adostasunik gabe egindako ezkontzak, dagokion epaile, alkate edo funtzionarioaren esku-hartzerik gabe egindakoak, edo lekukorik gabe egindakoak, ezkontidearen nortasunean errakuntza izanagatik eginak, derrigortzearen edo beldur larriaren ondorioz egindakoak.

Banantzea: Erabaki judiziala, baterako bizitza eteten duena eta etxeko ahala baliatzean beste ezkontidearen ondasunak lotzeko aukera eteten duena.

Dibortzioa: Ezkontza-loturaren desagitea; ezkontideen artean ezkontzean sortzen diren betebeharrak eskubideen galera dakar. Dibortzioak ez dituzte litezkeen seme-alabekiko betebeharrak baliogabetzen, haien ahaidetasun-harremanetik eratorritzen baitira, ez, ordea, ezkontza-loturatik.

- **Eremu geografikoa:** Nafarroako Foru Komunitatea
- **Emaitzak zer eperi dagozkion:** 2022
- **Biltzeko metodoa:** Administrazio-erregistroak baliatzea



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00